

MAIATZ.—Hiru hilabetekaria. Edité par l'Association *Maiatz*. M. J. C. de Balichon responsable de publication. Maya bovard. Imp. Mugalde (Hendaye) et Impriminute (Bayonne). 15, Pontrique karrikan. 64100 Baiona. Tel. (59) 59 86 33. 1 — 1982.ko otsaila. 2 — 82.ko agorrila. 3 — 83. eko martxoa.

*Egan*-eko liburuen sailean merezi du bere tokia Hemeroteka gai honek, bereziki euskarazko literatur aldizkaria denean eta hala da *Maiatz*. Tokia ez ezik, gure zorionik beroenakin batean ongi etorritzko agurra ere bai literaturaz soilik ari den aldizkari zahar honen partetik igazko udaberriz sortzen den aldizkari gazteari.

Pozgarria zaigu euskal literaturazko aldizkari hau agurtzea. Sorketazko literaturgintza du helburu eta gaur egun ezerk euskaraz premiarik baldin badu sorketazko literatura horret bai du. Literatura bai du hizkuntzak bere ondasunetarik garrantzizkoena, eta horren beharra dugu euskaldunok kulturaz behar bezala jantziko bagara. Beraz, behin eta berriz agur anai-kide zatozen *Maiatz*. Ongi etorri euskara idatziaren sorketazko eremuetara, zure premiarik badugu eta.

Hastapenak beti dira nekezak eta hiru hilabetekari bezala igazko otsailean hasi zen *Maiatz*-ek hiru zenbaki baizik ez ditu argitaratu. Hala ere, gure agurrarekin batean, bere ahaleginean jarraitzea eskatuko genioke. Bere asmo horien premia handia bai du euskaldungoaren esperantzak. Aldizkari berri honek bere lehen zenbakiaren atarikoan agertu zituen bere asmo eta helburuak zer diren:

«Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura.

Literatura, zertarako? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasa bainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.

Literatura guretako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak.

Literatura bizirako».

Azalpen horrek argi jartzen du *Maiatz*-en egitekoa zer den. Guk, epe luzeko iraupena opa diogu. Gaztetasunik etzaio falta, baina gure egungo egoeran gazte kemena bakarrik ez da aski, lana ere behar da, bereziki buru lana. Hortarakotz, *Maiatz*, zahar eta gazteen lumaz baliatzen da. Gazteak badu zer ikasi, Zaharrak badu zer erakutsi. Biek, eskuz esku eta buruz buru osatzen dute gure herriaren hizkuntza, euskaldungoa, eta lehen zenbakiaren idazle andana honako hauek osatzen dute: Etien Salaberri, Itxaro Borda, Auxtin Zamora, Beltza, Eñaut Etxamendi, Mayi Pelot, Lucien Etxezaharreta, Manex Pagola, Manex Erdozaintzi-Etxart, Aurelia Arkotxa, Txomin Peillen, Ladix Arro-sagarai, Jon Cazenave, Jean-Louis Davant eta Daniel Landart idazleek. J. Prevert Marek Halter eta Xavier Grall-en itzulpe-nak ere badakarzki.

Badu lan bizi eta garrantzitsurik, baina hemen ez gara sartuko xehetasunetan. Aldizkariak berez dituzten beren gora-beherak eta iraupenean beren ahalegina jar dezatela eskatuko genioke ezer eskatzekotan. Luma ederrik bildu dute beren orri-aldeetara eta horrek ziurtatzen du lanen kalitatea. Lehengo izeneri, gero 2 eta 3 zenbakietan beste honako hauek gehitu behar zaizkie: Mari Amestoy, Mikel Hiribarren, Piarres Xarriton, Pantxoa Etxegoin, Beñat Bidegorri, Beñat Oihartzabal, Mikel Dupak, Piarres Duny-Petre (Piarres Hegittoa izen ordez ere agertzen da), Zigor, Txipi Arbelbide, Xan Igos ta Mikel Duvert.

Lehenengotik hasita kalitatez gora joan dela esango genuke. Ezeren faltarik baldin badu, harpidetza eta laguntzarena. Euskaldungoarentzako hor-dagoa jo du, eta laudorioak baino bizi-tza bera maiteago baldin badugu enbidoa ere izanen du.

Sorketazko literatura beharrezkoa dugu eta gure ahaleginak eta inguruko euskaltzaleen laguntzak beharrezkoak ditugu. Gure aberriak, bere nortasunerako, bandera gutiago eta euskara behiago behar du. Hortarakotz errepika dezagun Etxeparerekin: Euskaldun den gizon orok altxa beza buruia.

J. S. M.